

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Luzaide

Aurkibidea

Udalerria: Luzaide

Sarrera



Nafarroako iparraldeko udalerria, Zangozako merindadearen ipar-mendebaldeko muturrean kokatua. Nafarroa Beherearekin muga egiten du: Banka du mugakide mendebaldean; Lasa (Baigorri) iparraldean; eta Arnegi (Donibane Garazi) ekialdean. Hegoaldean, berriz, Orreagarekin egiten du muga eta Ibañeta mendateak lotzen ditu bi udalerriak. Udalbiltzaren 2010eko datuen arabera, euskararen ezagutza-tasa %65ekoa zen Luzaiden urte horretan. Argazkian Luzaideko Santiago Apostoluaren eliza ([Wikipedia](#)tik hartua).

- **Biztanleak:** 380
- **Euskaldunak:** %65,52

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **4**
- Zintak: **10**
- Pasarteak: **15**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **2**
- Bideoak: **12**

Proiektuak

- Agustin Mendizabalen fondoa
- Dialektologia-EHU
- Euskal kultur erakundearen artxiboak
- Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak

Hizlariak

Angel Aintziburu Camino (1930-2019)



Buruxurirenea etxean jaio zen, baina Aintziburu etxean bizi da. Zortzi senidetan hirugarrena. Gurasoak ere luzaidearrak zituen eta beti Luzaiden bizi izan da. Lan askotan aritu izan da: artzain, unai, zurgin... Herriari buruz idatzi izan du; `Luzaiden gaindi´ lana argitaratu zuen 2002an. Kazetari gisa ere aritu izan da: Irulegi irratian (Nafarroa Beherea; urte luzez Luzaideko berriemailea), Irati irratian (Aezkoa) eta Euskalerrria irratian (Iruñerria). Ohorezko euskaltzain izendatu zuten 2014an.

Beñardo Indart (1925)



Beñardo Luzaideko Irioinia etxean sortu eta hazi zen zazpi haurrideko familia batean. Ez zen kasik batere eskolan ibili; aldiz, goizik hasi zen ardiekin lanean. Hamaika urtetik erretiratu arte artzaingoaz bizi izan da, lehenik etxeko nagusi batzuen zerbitzuko, gero bere kontu. Elkarriketa egin zitzaionean, ordurako laurogei ta hiru urte ukan arren, artean primadera eta uda guziak Oizungo etxolan pasatzen zituen (Urkuluko bidean).

Juan Jose Indart Arroki (1928)

Mikelau edo Mikelainia (ofizialki Mikelarenea) etxekoa. Ama Luzaidekoa bertakoa zuen eta aita, berriz, Irisarrikoa.

Juanita Luro Etxamendi (1921)

Luzaiden jaioa 1921ean. Aita Luzaideko Gaiñdolakoa zuen eta ama Arnegiko (Nafarroa Beherea) Ondarrolakoa.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Artzain gazte Luzaideko mendietan (1936-1950) (LUZ-005/001)

Garai hartako artzain frango bezala, Beñardo goizik hasi zen axurizain (11 urtetan) Luzaideko mendietan. Luzaide Borddeleko nagusiarentzat ari zen

lanean eta mendian pasatzen zituen urtean 10 ilabete. Axuriak, aintxiak, atzarrak eta ardiak zaintzen zituen han ; gertatu zaio ere urte osoa han egotea (atzar eta aintxiekin). Luzaideko mendietan iragan urteak kondatzean, oroitzapen ttipi asko gogora heldu zaizkio .

2. Mendiaren jabetzea emeki emeki (LUZ-005/002)

Maiatzean, ardiak eta axuriak alhan egoten ziren bordalde inguruko pentze eta maldetan, mendietako bazketara igo aintzin uda guztirako. Azaroan mogimendu berdina gertatzen zen : ardiek geldialdi bat egiten zuten bordaldean herrira jeutsi aintzin, abendoan.

3. Artzain-aprendizgoa (LUZ-005/003)

Artzaingoaren ikastea gogorra izan zaiteken, bereziki gazterik hasten zenean. Baxe-nafartar artzain gaztek ez zuten iduriz xiberotarren bizitza berdina. Hauek artzain helduekin bizi izanez olhan, trufak jasaitea gertatzen zitzairen.

4. Artzain baten janaria mendian (1936-1950) (LUZ-005/004)

Beñardo astean behin jeusten zen janariaren bila nagusien etxera. Ogi bat ematen zioten aste guztirako. Taloak ere jaten zituen goiz arrats, ahuntz esnean nahasirik, edo ere gasna edo xingarrarekin.

5. Gasna egitea (molde xaharrean eta xiberoko moldean) (LUZ-005/005)

Beñardok esnea 28 gradotan berotu eta, gatzitzen zuen eta hartzera uzten oren batez. Gero kallatua eskuz xehatzen zuen, biltzen, emeki emeki porroskatuz xortxan ezartzen, tinkatzen eta gorritzen su bizian. Xiberoko moldean, esnea xortxan ezarri aintzin bigarren aldi batez berotzen da ; aldiz ez da memento hortan xehatzen, ez eta ere berantago gorritzen.

6. Artilea (LUZ-005/006)

Artilea ere baliabide interesgarria zen : saldua zen (batzutan kontrabandan) edo galtzamatzen egiteko erabilia. Adinetako artzainek zuten artilea iruten eta trikotatzen.

7. Ardi moxtea (LUZ-005/007)

Artzain batzuek ardiak mendian moxten dituzte, beste batzuek behean. Beñardo, 1960. hamarkadan hasi zen ardiak behean moxten.

8. Artzain Garazin 1950tik hara (LUZ-005/008)

Beñardo Indart 1950ean etorri zen Luzaidetik Garazira eta bi tokietako artzaingoaren baldintzak konparatzen ditu. Kondatzen du Uharte-Garazin hasi zen lehen urtean (1950), artaldearen erdia antzu gertatu zela.

9. Beregain 1965tik hara (LUZ-005/009)

30 urtez artzain-mutil egonik, Beñardo Indartek bere ardiak erosten ditu 1965ean, lurak afermatzen neguko, bai eta ere etxola bat bere alhabidearekin udako. Horrela segitu du, artzain, erretiratu arte.

10. Ardia ongi ezagutu (LUZ-005/010)

Beñardo Indart ardi bizkainoarekin arizan da gehienik (buru beltza eta adarrik gabeko ardia). Zehazten du ere zein diren ardi onaren ezaugarri fisikoak.

11. Ardiaren eritasunak (LUZ-005/011)

Beñardo Indartek ardiaren eritasun ezagunenak (besteak beste golantura, maingueria) aipatzen ditu, bai eta ere artamolde batzu.

12. Ardiarekilako harremana (LUZ-005/012)

Artzain onak behar du ezagupena ukan (ardien ezagutzeko gaitasuna), bai eta ere pazientzia handia eta ardietatik hurbil egon (bereziki arkaltze edo erditze sasoinetan).

13. Joareak (LUZ-005/013)

Artzainak joareak ardi ederrenei ezartzen zizkien. Forma, neurri, luzetasun eta soinu desberdinetako joareak baziren, beharraren arabera (bideko joare luzeak, mendiko joare motxak), animalearen arabera (axuri joareak ttipiak ziren) etabar. Beñardok joarearen zati bakoitzaren euskarazko izena ematen du. Baigorriko joalgin bat aipatzen du (ba omen zen ere beste bat, donazahartarra, Bera izenekoa).

14. Luzaideko San Juanetako belarren bertuteak (LUZ-009/001)

San Juanetako ohiturak Luzaiden: bezperan sua egin eta "sarna fuera" esan; San Juan egunean, eguna argitu orduko, erre kara joan; elorriarekin gurutzeak egin...

15. Luzaide inguruko kontu ezberdinak eta "San Juanen bizarra" (LUZ-010/001)

San Juan bezperan sua egiten zen. Gainera salto egiterakoan "Sarna fuera, unak barnera gaixtoak kanpora" esaten zuten. Su hondarra lauza batekin estaltzen zuten eta haren azpikoa "San Juanen bizarra" zela esaten zuten. Lorekin egindako koroak; guritzeak; bedeinkatzeak. San Juan eguneko ihintza.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-12

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com